

ARLO OKUPAZIONALEKO ZERBITZUA EDO ZENTROA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Desgaitasuna duen 18+ pertsona > Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentro baterako sarbidea

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

18 eta 64 urte bitarteko pertsonak, **desgaitasuna dutenak**.

Kostua

Doako zerbitzua (otordu zerbitzua izan ezik).

Baldintzak

% 33ko edo hortik gorako **desgaitasuna**.

18 eta 64 urte artean.

Erroldatzea.

Zertan datza?

Produkzio-jardueren bidez, desgaitasunen bat duten pertsonen garapen soziolaborala, autonomia pertsonala eta autodeterminazioa errazteko programa ([2.2.2 fitxa](#)). Horretarako, zerbitzu okupazionalak honako hauek sustatzen dituzte:

- erabiltzaileen autonomia pertsonalerako, integrazio soziolaboralerako eta parte-hartze sozialerako beharrezkoak diren trebetasun okupazionalak eta sozialak hobetzea;
- estimulazio- eta/edo errehabilitazio-jarduerak, okupazionalak edo lan-aurrekoak, hezkuntzakoak eta prestakuntzakoak edo kulturalak, zentroan nahiz kanpoan;
- autonomia-mailari eustea, narriadura prebenitzea eta, hala badagokio, gaitasunak eta

trebetasunak (kognitiboak, funtzionalak, sozialak...) berreskuratzea.

Otordu-zerbitzua eta garraio egokituko zerbitzua ere izaten dute, beharrezkoa denean. Funtzionamenduan, malgutasun-irizpideak aplikatzen dira, zerbitzua erabiltzailearen behar eta lehentasunetara egokitzeko. Laneratzeko lehen urratsa izan daiteke, edo laneratzeko zailtasun larriak dituzten pertsonentzako alternatiba iraunkorra. Erabiltzaileek eskersari ekonomikoa jasotzen dute beren lanagatik, baina ez dira inolaz ere lan-kontratudun langileztat hartzen.

Norentzat?

18 eta 64 urte edo gehiagoko pertsonak, **%33ko edo gehiagoko desgaitasuna** dutenak.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua, otorduak izan ezik, hori koordainketari lotuta baitago, hau da, erabiltzaileak otordu-zerbitzuaren zati bat ordaintzen du, bere egoera ekonomikoaren arabera.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

18 eta 64 urte bitartean izatea.

Eskaera egiten den **Lurralde Historikoko udalerri batean erroldatuta egotea.**

% 33ko edo goragoko ezgaitasun-ziurtagiria.

Autonomiarako eta **gizartean eta lan-munduan integratzeko gaitasunak eskuratu behar dituen pertsona** izatea, eta epe laburrean enplegua lortzeko zailtasunak izatea.

Zentro okupazionalaren jardueretan **parte hartu ahal izateko oinarrizko gaitasun edo trebetasunak** izatea.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan.**

Informazio gehiago:

- [Zentro okupazionala Araban](#)
- [Zentro okupazionala Bizkaian](#)
- [Zentro okupazionala Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)